

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua

2 0 1 8 - 2 0 2 1

› 2018 › 2019 › 2020 › 2021 ›



Gizarte Kontseilua

2 0 1 8 - 2 0 2 1

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2018 > 2019 > 2020 > 2021 >

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Idazkaritza Nagusia

Lege Gordailua: LG G 00089-2022

Diseinua eta maketazioa: EPS Comunicación

Inprimaketa: Gráficas Irudi

Ale kopurua: 1.000

A u r k i b i d e a >

Aurkezpena	6
-------------------	----------

UPV/EHUko Gizarte Kontseilua	8
-------------------------------------	----------

Lege-esparrua	9
---------------	---

Unibertsitatearen Gobernu Egitura	10
-----------------------------------	----

Eginkizunak eta eskumenak	11
---------------------------	----

Osaketa	12
---------	----

Gizarte Kontseiluko hurrenkerazko kideak 2018-2021 aldian	14
---	----

Plan Estrategikoa	16
-------------------	----

2018-2021 osoko bilkuran jorratutako gaiak	18
---	-----------

Jarduera nagusiak	28
--------------------------	-----------

Plan Estrategikoaren esparruan egindako txosten eta azterketak	30
--	----

UPV/EHU-ren ikuspena	30
----------------------	----

Unibertsitate-enplegua	32
------------------------	----

Topalekua. Informazio-buletina	33
--------------------------------	----

www.gizartekontseilua.eus	40
--	----



A u r k e z p e n a





UPV/EHuko Gizarte Kontseiluak XXX. urteurrena izan zuen 2021. urtean. Hitzordu garrantzitsua, baina ospatu ezin izan genuena gustatuko zitzaigukeen bezala: ospakizun handi, publiko eta musukorik gabeko batean bilduz Unibertsitateko familia eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkaritza sozial, politiko, enpresariala eta akademiko joria. Coronavirus COVID-19ren pandemiaren zabalkunde mundialaren ondorioz hartutako neurri murriztaileak zirela eta, joan den maiatzean urteurren garrantzitsu hau argitalpen berezi baten edizioarekin baino ezin izan genuen ospatu.

Urte bete geroago ohore handiz aurkeztu dut 2018-2021 lau urteko Memoria, bestelako egoera batean. Kontseiluburu lanean aritu naizen ia zazpi urteetan, oraindik korapilatsua den egoera ekonomiko orokorrean eta zalantzaz beteriko egoera instituzional ere konplexuan; egiaztatu ahal izan dut, gaitasuna izan dugun heinean, Kontseiluak bideratu dituela gure Unibertsitatean ordezkatzeko dugun gizarterako ekarpen garrantzitsuak.

2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) aipatutako pandemia ofiziala izendatu zuen. Data historiko horretatik aurrera 150 herrialde baino gehiagoko gobernuek abian jarritako neurri murriztaileen artean honako hauek egon dira: isolamendua, itxialdia, koarentenak eta pertsonen mugimendu librearen murrizketak, baita mugen itxiera eta lurreko, itsasoko eta aireko garraio mota guztien gutxiagotzea.

Nahiz eta ikerkuntzak eta zientziak gaixotasun horri aurre egiteko txertoak lortu dituzten, inoiz baino azkarrago eta inoiz ez bezala, *'hodei beltzak'* ez dira oraindik guztiz garbitu. Ondorioz, faktore ebakigarriak izan dira murrizketa ekonomikoak, baliabide eskasak eta pandemia, aldi honetako Plan Estrategikoaren gaitasuna ezartzeko.

Gogorazten dizuet nik zuzendu dudan Gizarte Kontseiluaren 2017-2020ko Plan Estrategikoa aurreko hiru bestelakoa zen testuinguru batean abiarazi zela. Ekonomi eta finantza krisia zela eta, doikuntza zorrotzak egin behar izan ziren aurrekontu publikoetan, eta horrek eragina izan zuen orokorrean UPV/EHU-n eta, bereziki, Gizarte Kontseiluan.

2018aren ondoren, egoera berria azaldu zen 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Plana sortzearen eta onartzearen ondorioz. Gizarte Kontseilua, Unibertsitatearekin elkarlanean, ordezkari garrantzitsua da proposamenak egiteko, lan esparruak planteatzeko eta UPV/EHU-ren eta Gizartearen izenean konpromisoak bere gain hartzeko orduan. Plan hau erreferentzia markoa da euskal gizartearen garapenerako eta eraldaketarako, goi-mailako heziketaren, bikaintasunaren ikerketaren eta ezagutzen transferentziaren bitartez.

Gure Plan Estrategikoaren markoan, Gizarte Kontseiluak hainbat txosten eta ikerketa garatu ditu UPV/EHUren irudia indartzeko, hezkuntza erakundea gizartera hurbiltzeko eta Unibertsitate kudeaketaren hobekuntzan laguntzeko. Lan hauek Kontseiluaren webgunean argitaratu dira eta honako gaiak jorratzen dituzte: ikasleriaren enplegarritasuna, lanean txertatzeari buruzko inkestak, Unibertsitate jardueraren adierazleak gardentasuna bermatzeko eta UPV/EHUren kontu-ematea gizarteari, eta gizarte behar berriak.

Txosten horietatik guztietatik nabarmenena argitaratu egin da, bestelako berri interesgarriekin eta Osoko Bilkuran jorratutako gai nagusiekin batera, TOPALEKUaren azken hamabi zenbakietan 2018 eta 2021 bitartean. Sortu zenetik, 1999ko apirilean, joan den urteko azarora arte, 108 aldizkari argitaratu dira guztira.

Testuinguru global eta lehiakortasun handikoan, UPV/EHU munduko 400 Unibertsitate onenen artean mantentzen da, 2021eko Shanghaiko ranking ospetsuaren arabera; planetako 150 Unibertsitate gazte onenen artean; eta Espainiako 10 Unibertsitate onenen artean, 2018ko CWUR rankingean. Gainera, UPV/EHU sare enpresarialen arabera Espainiako unibertsitateen TOP 10ean dago, Everis Fundazioak egindako inkestan. Emaita horiek, ordea, ezin digute eragin gure helburuak galaraztea finantzaketan, produkzio zientifikoan, heziketa dualean, nazioartekotzean eta hizkuntza normalizazioan. Horiek guztiak bideratuta daudelako datozen erronka sozial, ekonomiko eta ingurune berriei aurre egiteko.

Lau urte hauetan zehar, azkeneko biak COVID-19ren ustekabeko *‘eraso’* larriak mundu osoan markatu dituelarik, gai izan gara gure lanaren garapenean aurrera egiten jarraitzeko ikuspegi estrategikoarekin. Halere, Marie Curiek zioen moduan *“J’ai appris que la voie du progrès n’était ni rapide ni facile”*, guztiz ziur nago datozen erronka guztiei irtenbidea aurkituko diegula batera eta Gizarte Kontseiluko pertsona ororen esfortzu, dedikazio, eta elkarlanerako irmotasunez agertzen duten espirituari esker

Joseba Agustín Eizaguirre Agote
UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Kontseiluburua



U P V / E H U r e n

G i z a r t e K o n t s e i l u a

Lege esparrua

Euskal gizarteak Unibertsitatean parte har dezan bermatzeko gobernu organoa da Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua. Gizarte Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Unibertsitateko Erkidegoaren gizarte interesen alde egiten du bere kideen bitartez.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren lege-esparrua Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa eta Gizarte Kontseiluaren Araudia bera dira.

Gobernu-egitura:

Unibertsitate gobernu-organoak

	Kide anitzekoak	Kide bakarrekoak
UNIBERTSITATEA	Gizarte Kontseilua Unibertsitate klaustroa Gobernu Kontseilua	Errektorea Errektoreordeak Idazkari nagusia Gerentea Gerenteordeak
CAMPUSA	Campuseko Batza	Campuseko errektoreordea
ZENTROAK	Fakultate/Eskolako Batza	Dekanoa/zuzendaria Dekanordeak/zuzendariordeak Idazkaria
DEPARTAMENTUAK	Departamentuko Kontseilua	Zuzendaria Idazkaria
UNIBERTSITATE INSTITUTUAK	Unibertsitate Institutuko Kontseilua	Zuzendaria Idazkaria

Eginkizunak eta eskumenak

Euskal Unibertsitate Sistemak, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek eta Gizarte Kontseiluaren beraren Araudiak ezarri dituzte Gizarte Kontseiluaren eskumenak.

Harremanak gizartearekin

- | Unibertsitatearen eta haren eremu kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzea, betiere unibertsitatearen jardueraren kalitatearen zerbitzua.
- | Unibertsitatearen eta bestelako erakunde publiko edo pribatuaren arteko lankidetzaren bultzatzea, ikasleen trebakuntza osatzeko eta lan merkatuan sartzeko bidea errazteko.
- | Ikasleak Unibertsitatean egoteari buruzko onestea.

Eskumen ekonomiko eta finantzarioak

- | Unibertsitatearen eta haren mendeko erakundearen aurrekontua eta urteko kontuak onestea Unibertsitatearen jardueraren ekonomikoak eta haren zerbitzuen errendimendua gainbegiratzea Gizartearen laguntza sustatzea unibertsitatea finantzatzeko eta unibertsitatearen jarduerak babesteko.
- | Ohiko gastuak kapital gastuetara transferitzeko eta kapital gastuak beste edozein izenburutara transferitzeko erabakia hartzea.
- | Unibertsitateko irakasleei banako ordainsari kontzeptu espezifikoaren hezkuntza eta ikerketako eskakizunetarako edo merezimendu aipagarrietarako.
- | Titulu ofizialik ez duten ikasketetarako prezio publikoak finkatzea.

Zentroak eta ikasketak sortzea

- | Fakultateak, Goi Mailako Eskola Teknikoak, Unibertsitate Eskolak eta Unibertsitate Institutuak sortzeko eta kentzeko proposamena egitea.
- | Ikerketako edo sokuntza artistikoko institutu edo zentro publikoak edo pribatuak unibertsitateari Unibertsitate-institutu gisa atxikitzeko hitzarmenak proposatzea.
- | Unibertsitate-ikasketak ezartzeko, aldatzeko edo kentzeko proposamena egitea.

Osaketa

Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen arabera, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak 24 kide ditu: 18 gizarte interesen ordezkari eta 6 unibertsitateko kideen ordezkari.

Gizarte Kontseiluak osoko bilkuraren eta batzordeen bidez garatzen ditu bere eginkizunak.

OSOKO BULKURA

GIZARTE-INTERESEAK		UNIBERTSITATE-KOMUNITATEA
8		6
Eusko Legebiltzarrak izendatuta		Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren ordezkariak:
3		Errektorea
Lurralde historiko bakoizeko Batzar Nagusietatik izendatuak	1	Idazkari nagusia
3	Lehendakariak izendatutako presidentea, Hezkuntzako sailburuak proposatuta	Gerentea
Ordezkaritza handiena duten sindikatuetarik izendatuak		Irakalde bat
3		Ikasle bat
Euskal Enpresarien Konfederakuntzatik izendatuak		Administraziooko eta Zerbitzuetako langileen ordezkari bat

Batzorde iraunkorrak

- | Koordinazio Batzordea
- | Gizarte Harremanetarako Batzordea
- | Ekonomi eta Finantzetarako Batzordea
- | Akademia eta Euskara Batzordea
- | Plan Estrategikoaren Batzordea

Gizarte Kontseiluko hurrenkerazko kideak 2018-2021 aldian (ordena alfabetikoaz)

Presidenteak

- | Eizaguirre Agote Joseba Agustín

Unibertsitate-Komunitateko berezko kideak

Errektoreak:

- | Balluerka Lasa Nekane
- | Ferreira Garcia Eva

Idazkari nagusiak:

- | Iriondo Bengoa Pedro Maria
- | Zurimendi Isla Aitor

Gerentea:

- | Bilbao Artetxe Lorea

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak izendatutako kideak

Irakasleak:

- | Amezua San Martín Enrique
- | Plazaola Muguruza Fernando

Ikasleak:

- | Elorriaga Uribe Naroa
- | Goitiandia Roquero Martin
- | Llorente Aguinagalde Adrián Hugo

Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala:

- | Andino García Susana
- | Zubia Flaño Emilio

Eusko Legebiltzarreko ordezkariak

- | Apiñaniz Diaz de Garayo Adolfo
- | Azaldegui Alba Idoia
- | Ezkerra Greño Iñaki
- | Fernandez de Garayalde Ulacia Arantza
- | Garai Iturriondobeitia José Ramón
- | Gochi García Álvaro

- | Mijangos Ugarte Fernando
- | Mouriz Ibarra Ainhoa
- | Luna Arcos Francisco
- | Ormazabal Ormazabal José Maria
- | Pérez Ayala Andoni
- | Pérez Hidalgo Maite
- | Redondo Rojo Ismael
- | Tobar Arbulu Joseba Felix

Batzar Nagusietako ordezkariak

Araba

- | Llanos Ortiz de Landaluze Armando
- | Martínez de Luna Pérez de Arriba Iñaki

Bizkaia

- | Zarraga Aburto Jon Iñaki

Gipuzkoa

- | Alday Garate Nerea
- | Astibia Legorburu Miren Aurkene

Sindikatuetakako ordezkariak

- | Angulo Renes Juan Manuel
- | García de Vicuña Peñafiel Pablo
- | Irastorza Garmendia Xabier
- | Larrañaga Artola Inaxio
- | Urrusolo Santos Jon

Euskal Enpresarien

Konfederakuntzako ordezkariak

- | Arambalza Zalbidea Yoana
- | Eriz Laskurain Nestor
- | Pereda Martínez de Musitu Carlos
- | Sarriegi Etxebarria Mikel

Idazkari Nagusia

- | Elorrieta Santos Maria Pilar

Legelari Aholkularia

- | Rementería Ruiz Ignacio Javier

2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa

Plan estrategikoa bi horizonte desberdindu definitzen ditu. Lehendabizikoa epe laburrekoa da (2017 eta 2018), eta maniobra-marjina apala du, aurrekontuean izandako murrizketen ondorioz; haren helburua zera da, lankidetzaz-espazio jakinak topatzea Gizarte Kontseiluaren eta EHUren artean. Hori hala izanik, ahaleginak bateratzen ari gara baterako proiektua definitzen eta gauzatzen, eta haien diseinua, zabaltzea eta emaitzak partekatuko ditugu.

Bigarren horizontea 2019tik aurrera abiatu zen, non agertoki berri bat ireki zen, 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren etorkizuneko Plana osatu eta onartzearen ondorioz. Gizarte Kontseilua, unibertsitatearekiko lankidetzan, funtsezko eragilea da proposamenak egiterakoan, lan esparruak planteatu zein konpromisoak hartzeko orduan, unibertsitatearen eta gizartearen arteko solaskidea den aldetik. Plan hau erreferentziazko esparrua da goi mailako prestakuntzaren, bikaintasunezko ikerkuntzaren eta jakintzaren transferentziaren bidez euskal gizarteak garatu eta eraldatu behar duena.

Gizarte Kontseiluaren 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa aurreko hiruren bestelako testuinguru aski desberdinean hasi zen. Krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioz, aurrekontu publikoak zorrotz doitu behar izan ziren, oro har, UPV/EHU osoari eta, bereziki, Gizarte Kontseiluari biziki eragin zuelarik.



Geroago, 2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) COVID-19 koronabirusaren pandemia mundiala deklaratu zuen, 150 herrialde baino gehiagori eragin diena. Gobernu guztiek hartutako neurri murriztaileen barne egon dira isolamendua, konfinamendua, koarentena eta pertsonen mugimendu askearen murrizketak, lokal publiko eta pribatuak ixtea funtsezko jarduerak izan ezik, mugak ixtea, aireko, itsasoko, trenbideko eta lurreko garraioa murriztea.

Honen guztiaren ondorioz, murrizketa ekonomikoak, eskurako baliabide urriak eta pandemia bera faktore erabakigarriak izan dira etapa honetako Plan Estrategikoaren irismena finkatzeko. Hala ere, honako ardatz estrategiko hauek planteatzen ditu:

- | Kontseiluaren egitekoa indartzea, gizarte-beharrizan berriak kontuan izanda.
- | Unibertsitatea eta enpresak gerturatzea, eta ikasle graduatuen enplegarritasuna sustatzea.
- | Sariak eta errekonozimenduak ematea kontseiluaren jarduera-esparruetan.
- | Aliantza-politika bat garatzea beste gizarte-entitate eta -erakunde batzuekin.
- | Gardentasunean eta kontu-ematean oinarritutako Unibertsitate-gobernantza baterantz aurrera egiten laguntzea.





j o r r a t u t a k o



O s o k o b i l k u r a n

g a i a k



200 Bilera 2018.03.21

- | 2018ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

201 Bilera 2018.03.21

- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2017ko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.
- | Aurrekontuko aldaketak.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.
- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. 2017ko Edizioa (2015/2016 Ikastaroa).

202 Bilera 2018.07.25

- | MEC . 2018-2019ko lankidetza bekak. 5 beken banaketa sailen artean.
- | Titulazio Ofizialak. 2018-2019ko Gradu, Master eta Doktoregoko eskaintza. Ezartzea, aldatzea eta kentzea.
- | Donostiako Kimika Zientzien Fakultatearen izenaren aldaketa.
- | Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolaren izenaren aldaketa.
- | 2018-2019 berezko tituluak. Prezioak.
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientzia Gelak. Prezioa.
- | Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- | 2017ko deialdiari dagokion irakasle eta ikertzaileen gharritzko ordainsari osagarrien esleipena (C tartea).

- | 2017ko deialdiari dagokion unibertsitateko irakasleen gehigarrizko ordainsari osagarrien (A eta B tarteak) esleipenaren prozeduraren bukaera.
- | Gehigarrizko ordainsari osagarrien ebaluaziorako eta osagarriak finkatzeko 2016ko deialdiaren esleipenaren aurkako berraztertze errekurtsoak.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Unibertsitateko 2017ko Txosten Ekonomikoa.
- | 2018-2019 Osoko Bilkuren egutegia.
- | UPV/EHUren Plan Estrategikoa (2018-2021). Gizarte Kontseiluaren ekarpenak. Txostena.

203 Bilera 2018.10.10

- | Gehigarrizko Ordainsari Osagarrien deialdia A eta B mailetako ordainsari osagarriak eta Unibertsitate eskolako irakasle titular ez doktoreen berariazko osagarria esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.
- | Aurrekontuetan aldaketak.

204 Bilera 2018.12.21

- | Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Gomailako Online Institutua (GOI.EUS) Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea onartzeko dena.
- | Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren arteko hitzarmena, Osasun-Instalazioak Unibertsitate-ikerketa eta irakaskuntzan erabiltzeko, aldatzeko dena.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | 2017ko deialdiari dagokion unibertsitateko irakasleen gehigarrizko ordainsari osagarrien (A eta B tarteak) esleipenaren prozeduraren bukaera aurkako berraztertze errekurtsoak.
- | Unibertsitateak beste erakunde batzuetan duen parte hartzea: BioAraba Osasun Ikerketarako Institutua.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.



205 Bilera 2019.03.27

- | Master eta Doktorego Eskolaren izenaren aldaketa.
- | Elias Querejeta Zinema Eskola UPV/EHUra atxikitzea.
- | UPV/EHUren parte hartzea "Arte Ederren Dekanoen Konferentzia".
- | UPV/EHUko Unibertsitate Masterrak (ofizialak) lortzera bideratutako ikasketak ezarri eta kentzea 2019/2020 ikasturtean onartzeko dena.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2018ko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.

206 Bilera 2019.07.22

- | 2019ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

207 Bilera 2019.07.22

- | Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa . 2019-2020ko lankidetza bekak. 5 beken banaketa sailen artean.
- | Titulazio Ofizialak. 2019-2020ko Gradu, Master eta Doktoregoko eskaintza. Ezartzea, aldatzea eta kentzea.
- | 2019-2020 berezko tituluak. Prezioak.
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientzia Gelak. Prezioa.
- | Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | UPV/EHUren parte hartzea Espainiako Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluen elkartean. "Espainiako Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluen Batzarra".

- | Unibertsitatea EHU ORKESTRA SINFONIKOA elkartearen partaide izatea bazkide fundatzaile gisa.
- | 2019-2020 Osoko Bilkuren egutegia.
- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. 2019ko Edizioa (2017/2018 Ikastaroa) .
- | Gasteizko Izarduy Komandantearen kaleko ospitale militar zaharreko etxe-uharteko 3.lur-zatia unibertsitateko zerbitzu publikotik kentzeko eta eraikina Vitoria-Gasteizko Udalari itzultzeko eskaria.
- | 2015 gradu promozioa. Laneratzeari buruzko inkesta. Emaizen aurrerapena.

208 Bilera 2019.10.16

- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. 2019ko Edizioa (2017/2018 Ikastaroa).
- | UPV/EHUren parte hartzea Espainiako Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluen elkartean. "Espainiako Unibertsitateetako Gizarte Kontseiluen Batzarra".
- | Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Unibertsitateko 2018ko Txosten Ekonomikoa.
- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.

209 Bilera 2019.12.20

- | 2020ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena. Ekonomi eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari aurkezten dion akordio proposamena.

210 Bilera 2019.12.20

- | UPV/EHUren 2016 eta 2017ko Fiskalizazio Txostenak. HKEEko Presidentearen agerraldia.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Irakasleen gehigarritzko ordainsari osagarrien (C1 eta C2 tarteak) esleipena.

- | D.J.F.A.ren puntuazioaren aldaketa. B3 osagarriari buruzko epaia exekutatzea.
- | Irakasleen gehigarrizko ordainsari osagarrien (B tarteak) esleipena, 2019ko apirilaren 27ko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreodearen erabakiaren kontrako errekurtsioa aintzat hartu eta gero lortutakoak.
- | Unibertsitate ekimenak soziolinguistika arloan. Txostena.
- | EHU group: Achucarro Basque Center for Neuroscience. Txostena.
- | Unibertsitateko beken eskaerak izapidetzean bitarteko elektronikoak erabiltzeari buruzko dekretu-proiektua. Gizarte Kontseiluaren ekarpenak.



211 Bilera 2020.07.15

- | UPV/EHUren 2016 eta 2017ko Fiskalizazio Txostenak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2019ko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Adimen artifizialeko gradua ezartzeko.
- | Unibertsitate ekimenak soziolinguistika arloan. Txostena.
- | Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa . 2020-2021ko lankidetzak bekak. 5 beken banaketa sailen artean.
- | Titulazio Ofizialak. 2020-2021ko Gradu eta Mastergoko eskaintza. Ezartzea, aldatzea eta kentzea.
- | 2020-2021 berezko tituluak. Prezioak.
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientzia Gelak. Prezioa.
- | Ikasketa Osagarriak.
- | UPV/EHUren parte hartzea Soziallingistikoa Kusterra.
- | 2020-2021 Osoko Bilkuren egutegia.
- | COVID-19 osasun alerta konfinamendua eta normalera itzultzea. Txostena.

212 Bilera 2020.10.7

- | Unibertsitate-zerbitzuen adierazleen sistema. 2020ko Edizioa (2018/2019 Ikastaroa).
- | Unibertsitateko 2019ko Txosten Ekonomikoa.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarrien deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.
- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarrizko ordainsari-osagarriak esleipena.

213 Bilera 2020.12.23

- | 2016 graduako promozioa. Laneratzeari buruzko inkesta. Emaizen aurrerapena.
- | Unibertsitate ekimenak Soziolinguistiko arloan txostena.
- | Irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarriak esleipena. Akatsak zuzenketa.
- | Irakasleen gehigarrizko ordainsari osagarrien (C1 eta C2 tarteak) esleipena.
- | Irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarriak esleipena. Sententzien exekuzioa.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bi izendatzea unibertsitateko irakaskuntza publikoa koordinatzeke kontseiluan.



214 Bilera 2021.03.24

- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren aurrekontu-likidazio egoerak 2020ko abenduaren 31an. Auditoria-txostena.
- | Zuzendaria izendatzeko Errektorearen proposamena.
- | Irakasle eta ikertzaileen gehigarrizko ordainsari osagarriak esleipena. Akatsak zuzenketa.

- | Irakasle eta ikertzaileen ordainsari osagarri gehigarrien esleipena. Berresleipenak.
- | Irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarriak esleipena. Sententzien exekuzioa.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bat izendatzea Gobernu kontseiluan.

215 Bilera 2021.04.21

- | Magdalena Barrenetxea Barrenetxea andreak UPV/EHUri dohaintzan emandako higiezinak enkante publiko bidez besterentzea.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bi izendatzeak Gobernu kontseiluan.
- | Titulazio Ofizialak. 2021-2022ko Gradu eta Mastergoko eskaintza. Ezartzea, aldatzea eta kentzea.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.

216 Bilera 2021.04.21

- | 2021ko Euskal Herriko Unibertsitateko aurrekontua. Irizpena.

217 Bilera 2021.07.01

- | Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa . 2021-2022ko lankidetzak bekak. 5 beken banaketa sailen artean.
- | 2021-2022 berezko tituluak. Prezioak.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.
- | Irakasleen gehigarritzko ordainsari osagarrien esleipena, 2021ko urtarrilaren 15eko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreodearen erabakiaren kontrako errekurtsoa aintzat hartu eta gero lortutakoak.
- | 2021-2022 Osoko Bilkuren egutegia.

- | Irakasleen gehigarritzko ordainsari osagarrien (A eta B tarteak) esleipena.
- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari osagarrien urtebeteko deialdia, osagarriak esleitzeko ebaluazioa eskatzeko.
- | UPV/EHUren parte hartzea AEPUM elkarte (Adinekoentzako Unibertsitate programen estatuko elkarte).
- | Giza Zientzietan gradu aurreko Berezko Titulua. Esperientzia Gelak. Prezioak.
- | Ikasketa Osagarriak. Prezioak.
- | Unibertsitateko masterretako ikasleen jarraitzeko arauak.
- | Kimika teorikoa eta modelizazio konputazionala Master Ofiziala. Aldaketa.


218 Bilera 2021.10.27

- | 2017 graduoko promozioa. Laneratzeari buruzko inkesta.
- | Unibertsitateko 2020ko Txosten Ekonomikoa.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Akatsak zuzenketa. Esleipenak ofizioz berrikusteko.
- | UPV/EHUren parte hartzea Espainako «Asociación para el desarrollo del Practicum y de las prácticas externas: Red de Practicum (REPRE)».
- | UPV/EHUren parte hartzea BADALAB Hizkuntza eta gizarte berrikuntza partzuergoa.
- | Gizarte Kontseiluaren ordezkari bi izendatzeak Gobernu kontseiluan.

219 Bilera 2021.12.22

- | Irakasleen gehigarritzko ordainsari osagarrien (C1 eta C2 tarteak) esleipena.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriak esleipena. Errekurtsoak.
- | Aurrekontuetan aldaketak.
- | Gizarte Kontseiluaren 2022. urterako aurrekontua. Jarduerak.
- | Unibertsitateko 2020ko Txosten Ekonomikoa.
- | UPV/EHUren parte hartzea «Asociación Corredor Vasco del Hidrógeno».





du era n a g u s i a k

Plan estrategikoaren esparruan prestatutako txosten eta azterketak

Gizarte Kontseiluak, Plan Estrategikoaren esparruan, zenbait txosten eta azterketa egiten ditu unibertsitatearen irudia indartzeko, irakaskuntza-erakundea gizarteari hurbiltzeko eta Unibertsitate-kudeaketa hobetzen laguntzeko.

Txosten horiek Kontseiluaren webgunean argitaratuta daude.

I UPV/EHUren ikusgaitasuna

Memoria honen bloke eta aldi honetan, honako hauek prestatu dira:

EHUk gizarteari kontuak emateko Unibertsitate-zerbitzuen adierazleak (2015etik 2019ra bitarteko ikasturteak)

Gizarte Kontseiluaren bidez gizarteari kontuak ematea lege-betekizuna da EHUrentzat, baina baita betekizun filosofikoa eta etikoa ere. Lan hori errazteko, Kontseiluak Unibertsitate-zerbitzuen adierazle-sistema bat diseinatzea erabaki zuen. Sistema horren bidez, funtsezko hogeitaz adierazle bidez, Unibertsitatearen gizarte-helburuen betetze-maila neurtu eta antzeko ezaugarriak dituzten beste Unibertsitate batzuekin alderatuko da.

Azterketa honen (emaitzak Gizarte Kontseiluaren webgunean daude eskuragarri) helburua gizarteari informazio ebaluagarria eskaintzea da emaitzei, ekarritako balioari eta UPV/EHUren helburuen betetze-mailari buruz, dagoen informazio ugaria laburbilduz eta lehenetsiz. Bildutako informazioak gizartearen oinarritzko galdera edo kezkei erantzuten die, kontuak emateko

funtsezko adierazleak agertzen ditu eta bat dator EHUk Plan Estrategikoan berariaz adierazitako helburuekin.

Emaiza UPV/EHUren azken irudi bat da, bederatzi arlo gakotan kontuak emateko orduan:

1. **Finantzaketa eta gastuak:** baliabideei eta gastuei buruzko ratio agregatuen inguruko posizioamendua.
2. **Txertatze-maila:** ikasle kopurua eta estaldura-tasa.
3. **Prestakuntza:** lortutako emaitzak eta prestakuntza-prozesuaren eraginkortasuna, ikasketak uztea, errendimendua, arrakasta eta praktikak.
4. **Ingurunearen premietara moldatzea:** prestakuntzaren erabilgarritasuna, laneratzea, enplegua lortzea.
5. **I+G+b ikerketa:** ikerketaren intentsitate eta kalitatea eta enpresarekiko harremana.
6. **Nazioartekotzea:** ikasleen mugikortasuna eta ikasleak erakartzea.
7. **Ospea:** akreditazioa berritu zaien graduako eta masterreko tituluak.
8. **Hizkuntza-normalizazioa:** euskaraz eskaintzen diren kredituak.
9. **Gizarte-erantzukizuna:** aukera-berdintasuna, genero-ikuspegiarekin.

Memoria honetan jasotako aldian, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko (2015etik 2019ra bitarteko ikasturteak) txostenak egin dira, eta, horietan, aipatutako helburuen betetze-maila eta egindako aurrerapena laburbiltzen dira.

I Unibertsitate-enplegua

Bloke honetan, eta Memoria honen aldian, Lanbiderekin batera, UPV/EHUn Titulua lortu duten Pertsonen Laneratzeari buruzko Inkesta egin da, jada unibertsitateko hogeii promozio inkestatu dituen.

Laneratzeari buruzko inkesta

Laneratzeari buruzko Inkesta behatoki iraunkorra da, eta, beroni esker, ezagutu ahal dira unibertsitateko ikasleen lan okupazioaren tasak eta garatzen dituzten enpleguen kalitatea eta egokitasuna. Gizarte Kontseiluak 1999ko uztailan sortu zuen Behatokia eta bere Plan Estrategikoan jasotako ekintzetako bat da.

Memoria honetan adierazitako urteetan, 2015eko, 2016ko eta 2017ko promozioen emaitzak argitaratu ditu inkestak, ikasketak amaitu eta hiru urtera. Hogeii Unibertsitate-promozio aztertu ditu dagoeneko, eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte Kontseiluak eta Lanbide sozietate publikoak izenpetutako hitzarmen baten bidez egin da. Inkestaren emaitzak oso tresna baliotsua dira gure Autonomia Erkidegoko goi-mailako irakaskuntzari eragiten dioten erabakiak hartzeko.

I Beste txosten batzuk

Bere eskumen ekonomiko-finantzarioen barruan eta memoria honek hartzen duen aldian, Gizarte Kontseiluak 2018, 2019, 2020 eta 2021 ekitaldiei dagozkien unibertsitatearen aurrekontuei buruz eta 2017, 2018, 2019 eta 2020 ekitaldiei dagozkien unibertsitatearen kontuei buruz eman du irizpena. Honez gain, jaso egin ditu 2016, 2017 eta 2018 ekitaldietako fiskalizazio-txostenak.

T o p a l e k u a

Gizarte Kontseiluaren buletina

Osoko Bilkura bakoitzaren ondoren, Gizarte Kontseiluak informazio buletin bat argitaratzen du, non jasotzen baitira bileran aztertutako gaiak, unibertsitatearekin, unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanekin eta unibertsitateko enpleguarekin zerikusia duten zereginen berri ere eskaintzen delarik.

1999ko apirilean kaleratu zuen lehenengo zenbakia.

2019ko maiatzean, Gizarte Kontseiluak 100. alea argitaratu zuen, eginkizun honen helburu nagusia berretsiz: aztertutako gaiei buruzko informazioa ematea eta unibertsitateko lanari ikuspegi soziala ematen dioten albisteak jasotzea.

Buletin honek unibertsitatearen, enpresaren eta beste eragile sozial, ekonomiko eta kultural batzuen arteko hurbilketa bultzatzen du eta beraiei banatzen zaie.



97. zk, apirila 2018

- Osoko Bilkurak 410, milioi euroko Aurrekontua onartu du EHU-rentzat 2018rako.
- EHU-ren kontu emateko adierazle gustiek bilakaera positiboa ageri dute, 2017ko azken txostenaren arabera.
- Euskal Autonomia erkidegoa da ikasleko finantzaketa publiko handiena duen Autonomia-Erkidegoa, ikasleko 8.429 € bideratua.
- EHU Unibertsitate Publiko gardenen Rankingean sartu da.



98. zk, uztaila 2018

- Gizarte-Kontseilua UPV/EHU-ren 2017ko ekitaldiko kontual onetsi du.
- UPV/EHU-ren 2018-2021 Plan Estregetikoa onetsi da.
- Euskal Autonomia erkidegoko Unibertsitate-Tituludunen % 78,5 laneratuta dago.
- CCS eta CRUE erakundeek indarrak batu dituzte, Unibertsitateek Gizarte-Ongizatearekin hartu duten konpromisoa bizkortzeko.
- 50 Estrategia, Iraultza digitala Espainian bultzatzeko.



99. zk, azaroa 2018

- └ Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko A eta B mailetakako irakasleen ordainsariarik osatzeko deialdia onartu du.
- └ Gainkualifikazioa handitu egin da azken hamarkadan, Europako herrialde gehienetan.
- └ Zerbitzuek eta erainkuntzak sortu dute enplegu-bolumen handiena Euskadin, 2015-2025 aldian.



100. zk, maiatza 2019

- └ Gure 100. alea ospatuko dugu.
- └ UPV/EHUk. Euskal Herrian unibertsitateko ikasketetan lehena izaten jarraitzen du 2007ko erreformatik aurrera.
- └ Pertsonetan eta erakundeetan "talentua" errazten duten autonomia erkidegoen rankingaren buru da Euskadi.
- └ Enpresa handien % 72k arazoak dituzte eskaintzen dituzten lanpostuak betetzeko.

101. zk, azaroa 2019

- | UPV/EHUren egoerari dagokionez, gizarteari kontuak emateko hogeitaz hamabik aurrerapen egokia erakusten dute.
- | Gizarte kontseiluak 422 milioi euroko aurrekontua onartu du UPV/EHUrentzat, 2019. uretan.
- | Euskal Herriko Unibertsitateko 2015eko promozioaren laneratze-tasa % 91,96 izan da, 2018 urtean.

[illegible]

102. zk, otsaila 2020

- | Gizarte Kontseilua 428 milioi euroko aurrekontua onartu du EHU/UPVrentzat 2020rako.
- | Euskadik hirugarren posizioan jarraitzen du enplegu-eskaintza-ren banaketa nazionaleko zerrendan.
- | UPV/EHU da Euskadiko erakunde zientifiko nagusia.

[illegible]



103. zk, uztaila 2020

- | Gizarte Kontseiluak UPV/EHUko berezko tituluen prezioak onetsi ditu 2020-2021 ikasturterako.
- | UPV/EHUko titulazioen artetik, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Medikuntzak eta Industria Ingenieritza Elektronikako dute afiliazio-tasa handiena Gizarte Segurantzaz.
- | Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren postuan ageri da unibertsitateko hezkuntza-eskaintzaren enplegarritasun-mapan.
- | UPV/EHUK plan bat abiarazi du COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko "Normaltasun berrian".



104. zk, azaroa 2020

- | UPV/EHUko tituludunen Gizarte Segurantzako afiliazio-tasa %78,9 da, ikasketak amaitu eta lau urtera.
- | Gizarte Kontseiluaren osoko bilkura urriaren 27an elkartu zen Bilbon, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) adierazle-sistema gizarteari kontuak emateko txostenaren 2020ko azken edizioa landu zuen, 2018-2019 ikasturteari dagokionez.
- | Euskal Autonomia Erkidegoak hirugarren segitzen du lan eskaintzaren banaketa nazionalaren rankingean. EAE, % 11,28rekin, lan eskaintzaren banaketa nazionalaren sailkapeneko hirugarren postuan mantentzen da bosgarren urtez jarraian.



105. zk, urtarila 2021

- | UPV/EHUko 2016ko promozioko ikasleen okupazio-tasa ehuneko laurogeita hamarrekoa da 2019 urtean.
- | EAE hirugarren postuan dago unibertsitateen errendimenduari buruzko CYD-en azken rankingean.
- | EHU enpresa-sareak ondoen balioetsitako Espainiako lehendabiziko 10 unibertsitateen artean dago.



106. zk, apirila 2021

- | Gizarte Kontseiluak 437,37 milioi euroko aurrekontua onartu du UPV/EHUn aurtengo ekitaldirako.
- | Euskal Autonomia Erkidegoko 25 eta 64 urte bitarteko goi-mailako tituludunen proportzioa Espainiako handiena da.
- | Aurrez aurreko Unibertsitate publikoetako matrikulek gora egingen jarraitzen dute, baina goia joko dute 2030 inguruan.



107. zk, uztaila 2021

- └ Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ko berezko tituluen prezioak onetsi ditu 2021-2022 ikasturterako. UPV/EHUk hirurogei master eta graduondoko baino gehiago ditu.
- └ Adeccok kaleratu duen txostenak Espainia osoko kualifikazio altuko proportzio historiko handiena erregistratu du.
- └ Langabezia tasa txikiena Euskadin goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen zegokien.



108. zk, azaroa 2021

- └ EHUko graduatuen %77 autonomia-erkidegoan bizi da eta lan egiten du.
- └ EAZ, Industria Ingeniaritza eta Erizaintza dira Euskadin gehien eskatzen diren titulazioak.
- └ 10 gazteetatik 8k uste dute lan eskakizunak zorrotzegiak direla titulatu berrientzat.



www.gizartekontseilua.eus

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren webgunea

Memoria honen xede den denbora-tartean, kontseiluak etengabe eguneratuta eduki du webgunea, eta organoak sortutako informazio eta jarduera jaso du. Aldi berean, intraneta hobetu eta haren erabilera sustatu da, kontseiluko kideekin komunikatzeko erreminta gisa. Horri esker, osoko bilkura bakoitza egin aurreko dokumentazio-prozesua arintzea lortu da, baita paper-euskarria ordeztzeko bidean aurrera egitea ere.

EHUren Gizarte Kontseiluak 1998tik aurrera egindako jarduerak, lanak eta argitalpenak **www.gizartekontseilua.eus** atarian daude jasota, eta urte horren aurretik egindako informazioa eta agiriak ere eskatu litezke.